



HPT: "MOBILIZATZEKO, PLANTO EGITEKO ETA GURE HEZKUNTZA ERAIKITZEKO IKASTURTEA DA"

Gaur, irailak 19, Hezkuntza Plataformen Topagunea (HPT) osatzen duten ikastetxe, auzo eta herri ezberdinetako hezkuntza bilguneen asanblada ospatu da, Durangoko Plateruena antzokian. Hezkuntza eragileetako ordezkariak ere parte hartu dute.: Ikasle Abertzaleak, Sortzen, Ikastolak, Lab eta Ela.

Asanbladan bildutakoek iazko ikasturtearen balantzea eginten hasi dute asanblada.

Oso positiboki baloratu dute HPT-ren deia jarraiki familiek LOMCEri egindako plantoa eta izandako herritarren babesa. Bide horretan jarraitzeko konpromisoa berrestu dute eta inposaketei planto egiten jarraitzeko plangintza zehatzak zehaztuko dituzte. Izan ere, aurtan LOMCE Hego Euskal Herriko ikastetxeetan bete-betean sartuta dago, bai Cristina Uriarteren sailean, Heziberri 2020ren bitartez, zein Jose Luis Mendozaren balizko aplikazioaren jarraipenaren bidez.

Ikasturte honetako egiteko nagusiak ere zehaztu dituzte: mobilizazioa, platoa, eraikuntza.

Planto hori baina, LOMCEri aurre egiteko harago joan behar dela ondorioztatu dute. Ildo horretatik, inposaketei aurre egiteko modurik honena gure hezkuntza propioa eraikitzea dela baiztatu dute. Horrela, maila lokalean, herritik herrira, hezkuntza proiektuak garatzeko eta sartzeko asmoa du HPT-k. Etorizuneko Hezkuntza Sistema Propioa herrietatik eraikitzeke modurik onena gaurdanik gure hezkuntza eredu eraikitzea da, beraz, **hezkuntza proiektu ezberdinak ezagutarazi, martxan jarri eta saretzeari ekingo dio HPT-k.**

Urrats hori emateko **formatu ezberdinetako mobilizazio eta ekimenak egingo dituzte urriaren erdialdean.** Hezkuntza komunitatea elkarlanean, kalera irten eta 'LOMCEri ez' esatetik 'gure hezkuntzari bai' esatera pasa nahi dute. Hori antolatzeke herrialdeka asanbladak egingo dituzte. Honi jarraiki, mobilizatzeko beharra azpimarratu eta elkarlanerako guneen bila urratsak ematen jarraituko dute.

Gainera, Hezkuntza Sistema Propioaren eraikuntza maila lokaletik egin daitekeela ikus arazteko, urriaren 24an, Bilbon, izango den Alternatiben Herrian parte aktibo izango direla iragarri dute, herri ezberdinetako hezkuntza proiektu alternatiboak bertara eramanez.

